

TXAPELKETA ZENBAKITAN

Bertsolarien adina gora
doa, bereziki finalean

Txapelketa sa-soian puntuei adi egon ohi gara, baina hemen bertze zifra batzuei erreparatu diegu, bertze errealtate batzuk ezagutzeko, azken bost txapelketen eboluzioaz oharatzeko, eta, azken batean, puntuazioa ere hobeki ulertzeko.

2001etik 2017ra arteko txapelketak erreparasatuz, ikusten da urtez urte zahartzen doala partaideen batez besteko adina, bereziki finalean. 2001ean 27 urtekoa zen eta aurtent 38koa. Lurralde-tasunari




erreparatzen badiogu, gipuzkoarrak dira nagusi urtero, nabarmen, eta ondotik bizkaitarrak. Nafarroak eta Arabak eutsi egiten diote eta azpimarratzekoa da lapurtarren maila. Aurten bostek parte hartu dute eta bik BECen abestuko dute, horietako bat gaurko txapelduna da, Amets Arzallus.

Generoari dagokionez, aurtent aunitz aipatu da zenbat emakume egon den lehian, baina datuak behatuta ohartuko gara 13 emakumek parte hartu dutela, 2013an bezalaxe. Aldaketa da gehiago iritsi direla finalaurrekoetara. Gorakada hori ez da finalean islatuko. Gai-jartzaile gehienak emakumeak dira (13 emakume eta 5 gizon); epaileen artean, ordea, alderantzizkoa gertatzen da. 5 emakume eta 15 gizon dira. Gai-jartzaile taldean ere gizonak gailentzen ziren 2001ean, 2005ean parean zeuden eta geroztik gehienak emakumeak dira, batez ere aurtent. Epaile taldean, berriz, andreak ez dira neurri berean sartu. Eta horrek, denak bezala, bere eragina du.


Gai-jartzaile gehienak emakumeak dira, 13 emakume eta 5 gizon. Epaileen artean, ordea, alderantzizkoa gertatzen da: 5 emakume eta 15 gizon dira.

Parte-hartzaile kopurua, generoaren arabera




Parte-hartzaile kopurua, lurraldetasunaren arabera


2001ean




2005ean




2009an



2013an



2017an



Bertsolariak,
adinaren arabera

2001ean

Txapelketako batezbestekoa:
27,38 urte
Finaleko batezbestekoa:
27,62 urte
Txapelduna:
40 urte

2005ean

Txapelketako batezbestekoa:
28 urte
Finaleko batezbestekoa:
30,25 urte
Txapelduna:
44 urte

2009an

Txapelketako batezbestekoa:
29,93 urte
Finaleko batezbestekoa:
34,12 urte
Txapelduna:
33 urte

2013an

Txapelketako batezbestekoa:
32,76 urte
Finaleko batezbestekoa:
34,50 urte
Txapelduna:
30 urte

2017an

Txapelketako batezbestekoa:
34,69 urte
Finaleko batezbestekoa:
38,37 urte